

eh bildu

HERNANI

Hernaniko Udala
SARRERA
2017 IRA. 20
Zkia. 4618
Atala: ... ALKATEAK

KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIOAREKIN BAT,

MOZIOA

Rep: Ederlan

Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari atea irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeke bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.

Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, Hernaniko Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:

- 1.- Udal honek, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeke.
- 2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu. Madrilgo Gobernuak, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.
- 3.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.

eh bildu

HERNANI

4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoek alde egiteko konpromisoa hartzen du.

5.- Udal honek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuko presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.

6.- Urriaren bateko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udalbatzak, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesari adierazi asmoz..

LUIS INTXAVUSPE

ARZAKENA

35773721-A